



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abenduaren 28a

148. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetako errepikatzaileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, amiantoa kentzeko plan zuzendaria betetzeari eta ekintza plana taxutu eta abian jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen zaien eskolta eta garraio zerbitzuen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozle eta intsumiso guztiei Nafarroako Parlamentuak bere errekonozimendua adierazteko mozioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren zenbait alderdiri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Andeloseira sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian aurreikusten diren jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Etxabakoizko Nicasio Landa Ikastetxe Publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, musika eskola eta kontserbatorioetarko kontingentzia plan berezi bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Murchanteko “Mardones y Magaña” Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Foruzaingoan 2020rako eginen den lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Europaren egungo politikek giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Vectia Mobility SLU eta Solaris Bus Ibérica SLU enpresek Castejongo planta dela-eta jasotako onura fiskalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, 2020-2021 ikasturteko lehen hiru asteetan konfinatutako ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetako errepikatzaileri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetako errepikatzaileri buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 25eko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroa Suma talde parlamentarioko Pedro González Felipe jaunak 10-20/PES-00209 galdera idatzia egin du. Hori dela-eta, hona Hezkuntzako kontseilariak ematen dion informazioa:

2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matriculatutako ikasle errepikatzaileri buruz eskatutako datuak honako taula hauetan daude:

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

1. TAULA. AG ereduako ikasleak

AG EREDUA		Publikoa		Itundua	
		2019-2020	2020-2021	2019-2020	2020-2021
Etapa	Ikasmaila	Ikasle errepikatzail eak	Ikasle errepikatzail eak	Ikasle errepikatzail eak	Ikasle errepikatzail eak
Lehen Hezkuntza	Lehen Hezkuntzako 1.a	262	140	22	14
	Lehen Hezkuntzako 2.a	160	92	15	7
	Lehen Hezkuntzako 3.a	135	56	17	3
	Lehen Hezkuntzako 4.a	108	43	12	3
	Lehen Hezkuntzako 5.a	72	31	12	4
	Lehen Hezkuntzako 6.a	68	41	16	7
	Guztira	805	403	94	38
DBH	Curriculum egokituko programa	27	17	9	5
	DBHko 1.a	368	255	60	21
	DBHko 2.a	309	207	91	19
	Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetako 2.a	8	2		2
	DBHko 3.a	290	101	92	37
	Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetako 3.a	61	50	7	1
	DBHko 4.a	236	120	77	30
Guztira	1299	752	336	115	
Batxilergoa	Batxilergoko 1.a	119	40	50	11
	Batxilergoko 2.a	198	86	68	20
	Guztira	317	126	118	31

2. TAULA. BD ereduiko ikasleak

BD EREDUA		Publikoa		Itundua	
		2019-2020	2020-2021	2019-2020	2020-2021
Etap	Ikasmaila	Ikasle errepikatzaileak	Ikasle errepikatzaileak	Ikasle errepikatzaileak	Ikasle errepikatzaileak
Lehen Hezkuntza	Lehen Hezkuntzako 1.a	20	3	4	2
	Lehen Hezkuntzako 2.a	23	20	2	3
	Lehen Hezkuntzako 3.a	26	11	5	1
	Lehen Hezkuntzako 4.a	12	7	5	1
	Lehen Hezkuntzako 5.a	5	1	4	1
	Lehen Hezkuntzako 6.a	8	2	3	
	Guztira	94	44	23	8
DBH	Curriculum egokituko programa	1			
	DBHko 1.a	36	24	4	2
	DBHko 2.a	68	15	6	2
	Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetako 2.a	2	2		
	DBHko 3.a	43	9	5	1
	Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetako 3.a	7	1		
	DBHko 4.a	35	14	1	1
Guztira	192	65	16	6	
Batxilergoa	Batxilergoko 1.a	46	6	2	1
	Batxilergoko 2.a	73	32	9	3
	Guztira	119	38	11	4

Galdera, lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lan-eskaintza publikoan 108 maisu/maistra lanpostu gaztelaniaz eskaintzeari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 25eko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (PES-00210);

horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

– Nafarroako Gobernuak zer oinarri juridiko darabil esateko “euskarazko beste horrenbeste lanpostu baliogabetu zituen epaia betez” eskainiko dituela gaztelaniazko 108 lanpostu? Nafarroako Gobernuak dio Administrazioa lanpostu horiek eskaintzera behartzen duela epaiak? Jarrera hori bermatzen duen txosten juridikoa jaso nahi dugu, baldin eta halakorik badago.

Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko eta Funtzio Publikoko Departamentuak dokumentu hauek igorri ditu:

ERABAKIA, 2020ko irailaren 9koa, Nafarroako Gobernuak hartua, zeinaren bidez agintzen baita bere horretan bete dadila urriaren 20ko 434/2016 epai irmoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko

Administrazioarekiko Auzien Salak emana AFAPNA sindikatuak abiarazitako 112/2016 prozedura arruntean.

Nafarroako Gobernuaren erabaki horren espedientean dauden txostenak ere erantsi dira.

– Nafarroako Gobernuak zer jarrera hartuko du baldin eta Estatuak ez badu onartzen 108 lanpostu horiek 2020ko lan-eskaintza publikoko 715 lanpostuetatik aparte eskaintzea? 2020ko berrezarpen-tasan sartuko lirateke eta 2021eko oposizioan eskainiko lirateke, AFAPNA sindikatuak exigitu duen moduan?

Nafarroako Gobernuaren erabakia betetzeko behar diren 108 irakasle lanpostuak 2020ko berrezarpen-tasaren ondoriozko lan-eskaintza publiko-

an sartuko dira. Dagoeneko sindikatuarekin negoziatu da Mahai Orokorrean. Haien deialdiaren arauak lan-eskaintza publiko horretan sartutako gainerako lanpostuei aplikatzen zaizkienak berak dira. Lan-eskaintza publikoa onesten duen dekretua argitaratzen denetik hiru urteko epea dago hura onetsi eta argitaratzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, amiantoa kentzeko plan zuzendaria betetzeari eta ekintza plana taxutu eta abian jartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, amiantoa kentzeko plan zuzendaria betetzeari eta ekintza plana taxutu eta abian jartzeari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 22ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20-PES-00211), jakin nahi baitu “zein den Nafarroako Gobernuaren aurreikuspena amiantoa kentzeko plan zuzendaria betetzeari eta ekintza plana taxutu eta abian jartzeari buruz”. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Lehenik, adierazi nahi dut gobernu hau ere kezkatuta dagoela, galdera egin duen taldea bezala, planteatutako gaiak duen garrantziagatik. Gure komunitatean dagoen amiantoa modu seguruan kentzeak duen garrantziagatik, alegia.

Jakin dakizuenez, eraikuntza eta ekipamenduetan dagoen amiantoa modu seguruan kentzea aurreko Parlamentu osoak hartutako konpromisoa da.

Oraingo Gobernuak, 2019. urteko azken hila-beteetan, zenbait udali aukera eskaini zien udal eraikuntza publikoetan ezkutuan dagoen amiantoa bilatzeko azterlan pilotu bat abiarazteko, NOPLOik finantzatuta. Ez zen modurik izan, Foru Administrazioarekin zerikusirik ez zuten arrazoiengatik.

Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren baliabideen eta zuzendaritzaren jardunean Covid-19 izurriteak 2020ko martxotik aurrera eragindako estualdiak bere horretan dirau. Horren ondorioz geroratu egin behar izan dira beste programa asko, tartean amiantoa kentzeko plana prestatu eta abian jartzekoa.

Hala ere, bitarte horretan ez da bertan behera utzi aipatutako konpromisoa. Lan hauek egin dira:

– Amiantoa kentzeko plan zuzendaria berrikusi eta zuzentzea; aste honetan argitaratzekoa da.

– European eta beste kontinente batzuetan amiantoa kentzeko egindako lurralde- eta sektore-plan eta -esperientzien gaineko berrikuspen bibliografikoa.

– Kataluniako Generalitateak bere lurraldean amiantoa kentzeko plana prestatzeko egindako lankidetzaren eskaerari baiezkoa ematea (Generalitateko batzordearekin ekainerako aurreikusitako bilera azarora atzeratu da).

Azkenik, jakinarazten dut egingarritzat jotzen dela aurten, 2020an, departamentuen arteko web orri bat prestatzen hastea (INTIA, Nafarroako Gobernuko Ondarea, SITNA, Toki Administrazioa, Etxebizitza, Lana, NUKF eta abar bilduko dituen), eta bertan material amiantodunak kentzeko baliabideei buruzko informaziorako eta prestakun-

tzarako materialak jartzea, bai eta dagoen amiantoari buruz eskura dauden datuak ere.

Datuok web orri horretan jartzeko, zentsu dinamiko bat diseinatzen hasiko da. NOPLOIren 2020ko ekitaldi honetarako aurrekontuko finantza-baliabideak erabiliko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen zaien eskolta eta garraio zerbitzuen kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Aznárez Igarza andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen zaien eskolta eta garraio zerbitzuen kostuari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 1eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak idatzizko galdera egin du (PES-000213); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei egun ematen zaien eskolta zerbitzuen kostua zein da?

Nafarroako Gobernuko ibilgailu-parkeak Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohiei ematen dien garraio zerbitzuen kostua zein da?

Gaur egun honako lehendakari ohi hauek jasotzen ari dira eskolta pertsonalaren zerbitzua:

- Jaime Ignacio Del Burgo jauna
- Miguel Sanz Sesma jauna

- Yolanda Barcina Angulo andrea

- Uxue Barkos Berruezo andrea

Agintariak Babesteko Brigadak ematen duen zerbitzu hori urteko 365 egunetan eskaintzen da, eta agente bat edo zenbait agente aritu daitezke; beraz, haren justifikazio ekonomikoa aldatzen da eta ezin dugu une honetan kostu finkorik zehaztu. Dena dela, Foruzaingoak agente bakoitzeko 45.000 euro inguruko kostua kalkulatu du.

Bigarren galdera dela eta, Barneko zuzendari nagusiaren irailaren 28ko 250/2015 Ebazpenaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko zenbait agintari babesteko arauak ezarri ziren:

“1.- Nafarroako Gobernuko lehendakari ohiei babesa ezartzea, haiek berariaz uko egin ezean, era honetara:

– Miguel Sanz Sesma jauna: foruzain bat eta ibilgailu ofizial bat, Nafarroako Foru Komunitatean soilik.

– Yolanda Barcina Angulo andrea: foruzain bat eta ibilgailu ofizial bat, Nafarroako Foru Komunitatean soilik.

2. – Nafarroako Gobernuko lehendakari ohi Jaime Ignacio del Burgo Tajadura jaunaren eta Juan Cruz Alli Aranguren jaunaren babes zerbitzuen ordezkari sistema bat jartzea, harik eta lehendakari ohiak izateagatik arriskurik ez dutela egiaztatzen arte.

Halaber, Del Burgo Tajadura eta Alli Aranguren lehendakari ohiek ibilgailu ofiziala erabiltzeko eskubidea izanen dute Nafarroako Foru Komunitatea ordezkatzuz ekitaldietara joaten direnean lehendakari ohi gisara. Betiere interesdunak zerbitzua eskatu beharko du alde zurretik”.

Ibilgailu Parkearen Atalak, ebazpen horretan ezarritako irizpideari jarraituz, ibilgailu ofizial bana jarri du Miguel Sanz Sesma jaunarentzat eta Yolanda Barcina Angulo andrearentzat.

2019an zerbitzuak kostu hau izan du:

- Miguel Sanz Sesma jauna: 14.679,63 €
- Yolanda Barcina Angulo andrea: 4.834 €

Guztizko gastuak ibilgailuaren erabilerari dagozkion prestazioenak dira (mantentze lanak, konponketak, amortizazioak, erregaia edota aseguru).

Agintari horiek ibilgailu bana erabili dute.

- Jaime Ignacio Del Burgo Tajadura jauna:

Legegintzaldi honetan ez du baliatu Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohi izateagatik ibilgailu ofiziala erabiltzeko duen eskubidea.

- Juan Cruz Alli Aranguren jauna: 173,98 €

Legegintzaldi honetan behin baliatu du Nafarroako Foru Komunitateko lehendakari ohi izateagatik ibilgailu ofiziala erabiltzeko duen eskubidea.

- Uxue Barkos Berruezo andrea:

Legegintzaldi honetan Ibilgailu Parkearen Atalak ez dio eman ibilgailu ofizial gidaridunaren zerbitzurik, eta ez dio ibilgailu ofizialik jarri.

** Nafarroako Foru Komunitateko zenbait agintari babesteko arauak ezartzen dituen Barneko zuzendari nagusiaren irailaren 28ko 250/2015 Ebazpenean ez dago jasorik Uxue Barkos Berruezo andrea lehendakari ohi denik, ebazpena sinatu zen garaia dela eta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozle eta intsumiso guztiei Nafarroako Parlamentuak bere errekonozimendua adierazteko mozioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, soldadutzaren aitzineko kontzientzia-eragozle eta intsumiso guztiei Nafarroako Parlamentuak bere errekonozimendua adierazteko mozioa dela-eta egindako jarduketei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 1eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (10-20/PES-00214). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

1. 2018ko uztailaren 30ean Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak I+Gko kontratua sinatu zuen Gaztela-Mantxako Unibertsitatearekin, Nafarroako kontzientzia eragozpenaren mugimenduek historian izandako eboluzioari buruzko txostena egiteko. Unibertsitate horretako Pedro Oliver Olmo irakasle titularrak zuzendu zuen azterlana. Nafarroako Gobernuak hura egiteko eskatu zuen halako mugimenduekiko interesa duelako, balio demokratikoen defentsa aldarrikatu baitzuten eta bakearen kulturaren sustapenean oinarritutako esperientziak ordezkatu baitzituzten. Beraz, haien ezagutza lagungarria izan daiteke bakerako eta giza eskubideen erabateko errespeturako hezkuntzarekin lotutako balioak garatzeko.

2. Txostena 2019ko ekainean jaso zen. Pedro Oliver Olmo eta Bruno L. Aretio-Aurtena irakasleek egin zuten, eta NUPeko Fernando Mendiola

Gonzalo irakasleak lanean parte hartu zuen ikerlari laguntzaile gisara. Txostenean, kontzientzia eragozpenaren mugimendua bere ingurunean kokatu ondoren, digitalizatu diren funtsak deskribatzen dira: MOC funtsa, Rey funtsa, Moreno funtsa, Espetxea funtsa, Batzarre (Kakitzat) funtsa, Ehgam funtsa, Subiza funtsa eta Romeo funtsa. Era berean, mugimenduek 70eko, 80ko eta 90eko hamarkadetan izandako eboluzioari buruz egindako elkarrizketa kolektiboak aipatzen dira. Elkarrizketatu egin dira 70eko hamarkadako eragozleak, Kakitzat, Nafarroa Intsumitua, AFOINA, Sakanako Antimilitarista Taldea, Emakume eragozleak, Intsumisioa NUPen eta Intsumisio arrosa, beste kolektibo batzuen artean. Dagoeneko amaitu da elkarrizketa horien transkripzioa, indexatu aurreko urratsa. Ikertzaile nagusiak ematen digun hiztegi espezifiko erabiliko da indexazioan.

3. Hurrengo hilabeteetan zehar zabalkunde proiektu bat garatuko da. Hala, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Memoriaren Institutuaren web orriaren bidez erabiltzaileei sarbidea eskainiko zaie Nafarroako kontzientzia eragozpenaren eta intsumisioaren mugimenduaren artxibo historikorako. Proiektu horrek sarbidea emanen du datu pertsonalen babesaren inguruko arazorik ez duten jatorrizko funts fisikoen irudikapen digitalizatua eskuratzeko.

4. Elkarrizketak indexatzen amaitu eta haiek bistaratuko dituen web proiektua garatu ondoren, herritarren eskura jarriko dira, web proiektu berraren esparruan, ahal dela 2021eko bigarren seihi-lekoan zehar.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren zenbait alderdiri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Planaren zenbait alderdiri buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 1eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-20/PES-00216, 10-20/PES-00217 eta 10-20/PES-00218 idatzizko galderak egin ditu. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia lanean ari da bere politikak gidatuko dituen Kanpo Ekintza Plana prestatzen. Plana, noski, pandemiak eragindako krisiaren ondoriozko agertokiei begira egonen da.

Halaber, Topagune Iraunkorrek, hasieratik, xede dute Espezializazio Adimendunaren Estrategiako sektore nagusiak garatzea, eta, beraz, proposatutakoa bat dator haien izaerarekin.

Gainera, euroeskualdeak izoztu egin zuen bere laguntza-deialdietako bat, oinarriak egokitzeko eta pandemiak sortutako eraginak leuntzen ahalgo zituzten proiektuei lekua egiteko.

Mugak ixtearen eraginari dagokionez, Nafarroako Mugaz gaindiko Estrategia prestatzen ari da Zuzendaritza, eta horren ekintza-ardatzen barruan aurreikusten du mugaz gaindiko oztopoak detektatzea eta horiek leunduko dituzten ekintzak abiaraztea.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 2015etik mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren normalizatuaren alde jarduten du. Beraz, ebazpenaren betetze gradua erabatekoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olo Hualde

Galdera, COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, COVID-19aren ondorioz zahar-etxeek dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 1eko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak galdera egin du zahar-etxeetan Covid-19aren ondorioz dauzkaten aparteko gastuak konpentsatzeari buruz (10-20/PES-00219). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

Departamentuak zenbat diru bideratuko du horretarako, jada bideratutakoaz gain (2,6 milioi eta 500.000 euro toki entitateen bidez)?

Eskubide Sozialetako Departamentuak zahar-etxeen aparteko gastuak konpentsatzeko jarriko duen diru kopurua, gaur gaurkoz, 1.757.597 euro da (zenbateko hori handitu egingen da zahar-etxeek maiatzaren 31tik aurrera izandako aparteko gastuak aztertu eta gero):

- 1.161.625 euro aparteko gastuak konpentsatzeko (2020-03-01etik 2020-05-31ra arteko likidazioa). Laster eskatuko dira datuak ekainetik iraileira bitartekoak hilabeteak eta, gero, irailetik abendura bitartekoak likidatzeko.

- 425.094 euro eguneko arreta zerbitzua egin ezin izateagatik (hori 2020ko azarora arteko zenbatespenari dagokio).

- 170.878 euro kalte-ordainengatik, 2/2020 FLDan ezarritakoarekin bat (martxotik ekainera, dena geldituko litzateke likidatuta)

Aurrekontuko zer partidaren kargura ordainduko da kostu hori?

- 920000930004809231005 COVID-19a Kontratu etako kalte-ordainak: 170.878 €

- 920005 93100 2600 231B10 COVID-19a Zaharrentzako zentroen kudeaketa: gainerakoa.

Zenbateko hori aurrekontuetan jada aurreikusita ez bazegoen, nondik aterako da dirua?

COVID partiden zati bat hornitzeko, aparteko gizarte funtsetik transferentzia egin da Estatuko Administrazioaren 2616231F.451.07 kredituan, eta gainerakoa honako partida hauen kargura hornitu da:

- 920005 93100 2600 231B05 Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroen kudeaketa, eta 920005 93100 2600 231B06 Gaixotasun mentaleko zentroen kudeaketa.

- 950000 96000 4809 241304 COVID-19a Kontratuak eteteagatik kalte-ordaina, Nafarroako Gobernuaren 2020ko apirilaren 1eko Erabakiaren bidez finantzatua. Erabaki horrek hiru foru lege proiektu hauek onesten ditu: COVID-19a dela-eta osasun publikoko arrazoiengatik aparteko eta presako neurriak hartzeak ekarritako beharretarako kreditu berezia ematen duen Foru Lege proiektua; arrazoi beragatik kreditu-gehigarria ematen duena; eta Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua.

Zer irizpide erabiliko dira banaketa egiteko? Pandemiaren ezinbestean gutxitu beharreko tokien-gehiak jaso ez diren diru-sarrerak sartuko al dira hor?

Egoitzetako gastu hauek konputatu dira COVID-19aren ondorioz: desokupazioa (toki gutxiago egotea okupatuta), langile errefortzuak, langileen bajek entitateari sortzen dieten kostua, eta aparteko gastuak (NBEak, gel hidroalkoholikoak, desinfektatzaileak, garbiketara).

Konputatzen ahal diren gastuetatik, egoitza bakoitzarekin itundutako tokien portzentajearen arabera egin da banaketa, eta horietatik % 50 ordainduko da.

Noiz egingen da ordainketa?

Hurrengo egunetan. Izapidetze prozesu administratiboa bukatu eta berehala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Galdera, Andelosea sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian aurreikusten diren jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Andelosea sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian aurreikusten diren jarduketei buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 16ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20/PES-00245):

Zer jarduketa egitea aurreikusten du Lurralde Kohesiorako Departamentuak Andelosea sartzeko Arga ibaiaren gaineko Mendigorriko zubian, hurrengo bi urteetan (2020 eta 2021)?

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horri buruz ematen dion erantzuna: gaur gaurkoz, ezin da esan zer jarduketa aurreikusten diren, orain 2021erako aurrekontuen aurreproiektua prestatzen ari delako.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendigorria-Garesko osasun barrutia berrantolatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko uztailearen 24ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioko foru diputatu Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera idatzia (10-20-PES-00137) dela eta, "aurreko erantzunean aipatutako Mendigorria-Garesko Osasun Eskualdearen berrantolaketa aurreikuste-ari" dagokionez, Nafarroako Gobernuko Osasune-

ko kontseilariak honako informazio hau ematen du:

GARESKO OINARRIZKO ESKUALDEKO KUPOEN BERRANTOLAKETA.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendariordetza eta Garesko Osasun Zentroko taldearen zuzendaritza, 2015etik, lanean ari izan dira aipatu zentroko kupoak berrantolatzeko eta, horrela, langak banatu eta orekatzeko, laster zentro berria eraikitzea aurreikusita zegoela kontuan hartuta.

Nafarroako Ekialdeko Zuzendariordetzak hainbat bilera egin zituen Oinarrizko Eskualdeko zuzendaritza-taldearekin eta zentroko langileekin. Hasieran berrantolaketa simple bat planteatu zen, hau da, osasun-txartel indibidualak birbanatuta jarduera kontsultategi guztietan mantentzea, biztanleak ahalik eta gutxien kaltetzeko eta efizientzia handiena bilatzeko, kontsultategi batetik bestera alferreko joan-etorriak saihestuz.

2018ko azaroaren 28an Nafarroako Ekialdeko zuzendariordetza Garesko taldearekin bildu zen; bileran 4 proposamen aurkeztu ziren (bakoitzak bere abantaila eta desabantailaekin). Proposamenek barnean hartu zuten Garesko kupoaren berrantolaketa, lan-karga handiena duelako, kontsultategi batera joan beharrik ez badago ere. (GAP proposamenaren agiria)

Lehen mailako arreta taldearen proposamenaren arabera, egoera onena honako proposamen hau zen: kupo guztiek Garesko erabiltzaileak izatea, horrela orekatuko baitziren lan-kuotak. Proposamenaren arabera, oinarrizko arreta-unitate bat gehiagok izanen zuen kontsulta Garesen, eta espazioak sortu behar ziren, hain zuzen ere bi espazio, oraingo eraikinean ezinezkoak: eraikin horrek 5 kontsultategi ditu + albaitariak erabiltzen duen espazio bat. Kontsultategi bi oinarrizko arreta-unitateetarako erabiltzen dira, non lanaldi osoan Garesko pazienteei ematen zaien arreta; beste 2 kontsultategi pediatriako oinarrizko arreta-unitateetarako, eta espazio libre bakar bat geratzen da. Ondorioz, kontsultategiak partekatu behar dituzte profesionalak beren lanaldiaren zati bat Garesen egiten dutenean.

2019ko irailean, lehen mailako arreta taldeak osasun eskualde oinarrizkoaren berrantolaketa berriz egiteko egindako bilera batean, proposamen desberdinak berriz baloratu ondoren, berrantolaketa baztertzea erabaki zen, osasun-zentro berri bat eraiki arte.

Egoera horrek –espaziorik eza– are zailago bihurtu zen 2020ko martxotik aurrera, COVID-19a izateko susmoa duten pazienteei arreta emateko eta PCR probak –bai gaixoei, bai kontaktuei– osasun eskualde oinarrizkoan egiteko berariazko zirkuituen beharra agertu zelako.

Oraingo egoera epidemiologikoan, kuotak berrantolatzeko, ezinbestekoa da erabiltzaileen eskari guztiak bermatuko dituzten espazioak gaitzea. Konponbide egingarriena osasun-zentro berri bat eraikitzea da, epe luzerakoa izan arren; epe laburrera, zentrotik kanpoko esparruak aurkitu behar dira, Udalarekin eta hainbat entitateekin elkarlanean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, Etxabakoizko Nicasio Landa Ikastetxe Publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Etxabakoizko Nicasio Landa Ikastetxe Publikoari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 18ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko Bakartxo Ruiz jaso andreak idatziz aurkeztu duen 10-20/PES-00197 galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak jakinarazten du:

– Educacan agertzen diren datuen arabera, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleen eskolatzea, ikastetxez ikastetxe, honako taula honetakoa da:

IKASTETXEA	Ikasleen kopurua
Barañain Los Sauces HLHIPa	49
Barañain Sta. Luisa Marillac ik. itundua	37
Iruña Claret Larraona ikastetxe itundua	21
Iruña Nicasio Landa HLHIPa	20
Iruña Ermitagaña HLHIPa	18
Iruña Amaieur Ikastola HLHIPa	13
Iruña Iturrama HLHIPa	11
Barañain Alaiz HLHIPa	10
Zizur Done Jakue Bidea HLHIPa	7
Iruña S. J. Cadena HLHIPa	5
Zizur Txikia S. Fermin ikastola	5
Barañain Eultza HLHIPa	4
Iruña. Ntra. Sra. del Huerto ik. itundua	3
Iruña Santo Tomas ik. itundua	3
Iruña Sta. Catalina Laboure ik. itundua	3
Iruña José M ^º Huarte HLHIPa	3
Iruña Jaso ikastola	3
Zizur Txikia Miravalles ik. itundua	2
Mutiloa Luis Amigó ik. itundua	2
Iruña Buztintxuri HLHIPa	2
Burlata Irabia-Izaga ik. itundua	1
Iruña Calasanz ik. itundua	1
Iruña El Redín ik. itundua	1
Iruña Hijas de Jesús ik. itundua	1
Iruña S. Ignacio ik. itundua	1
Iruña Sant. Sacramento ik. itundua	1
Ikastetxe itundua Iruña Sta. Teresa Jesús	1
Cárcar V. Gracia HLHIPa	1
Iruña Azpilagaña HLHIPa	1
Iruña Bernart Etxepare HLHIPa	1
Iruña García Galdeano HLHIPa	1
Iruña Arrotxapea HLHIPa	1
GUZTIRA	233

– Ikasleen % 86,3 (201) AG eremuan daude matrikulatuta, eta % 13,7 (32) BD eremuan

– Hezkuntza Departamentuak erakunde arteko kanpaina bat burutu zuen, haurrak eskola publikoan matrikulatzea bultzatzeko, eta hurrengo aldiari dagokion kanpaina prestatzen ari da, aurrematrikula egiteko; Nicasio Landa HLHIPan ez da banakako kanpaina berezirik egin.

– Une hauetan, Ikuskaritza Zerbitzuko, Bizikidetzeta Bulegoko eta Gizarteratzeko Bulegoko

teknikariek osatutako lantalde bat eratu da, dago-kion Auzo Unitatearekin eta ikastetxeko zuzendaritza taldearekin elkarlanean, jarduteko estrategia orohartzaile bat ezartzeko, eta horrela, Nicasio de Landa HLHIP dagoen egoerari aurre egiteko.

Iruñean, 2020ko azaroaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, musika eskola eta kontserbatorioetako kontingentzia plan berezi bat taxutzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, musika eskola eta kontserbatorioetako kontingentzia plan berezi bat taxutzeari buruzkoa. Galdera 2020ko irailaren 25eko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko Pedro José González Felipe jaunak idatziz aurkeztutako 10-20-PES-00205 galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak jakinarazten du:

1. Hezkuntza Departamentuak onetsi duen prebentzio- eta antolamendu-protokoloak, aurrez aurreko hezkuntza-jardueraren garapenerako, 2020-2021 ikasturteari begira, araubide bereziko irakaskuntzak jasotzen ditu (helduen hezkuntza, hizkuntzak, musika eta dantza); musikari dagokio-

nez, protokoloak hurrenez hurren, lanbide-kontserbatorioetan eta goi-mailako kontserbatorioetan ematen diren Lanbide Prestakuntzari eta goi-mailako arte-irakaskuntzei eragiten die. Zentro horiek beren kontingentzia-planak egin dituzte. Hortaz, ez dago berariazko plan erkiderik Nafarroako musika-kontserbatorio eta eskolentzat.

2. Ez dago Hezkuntza Departamentuak onetsitako berariazko kontingentzia-plan berezirik, udal musika eskolei helarazteko.

3. Hezkuntza Departamentuak ez du ezarri udal musika-eskoletan ezartzeko kontingentzia-plana entregatzeko eperik, halako plan bat berrikusi eta onestea ez baita bere eskumena.

4. 2020ko irailaren 14an Hezkuntzako Ikuska-pen Zerbitzuak jaso zuen, posta elektronikoz, Tuterako "Fernando Remacha" Eskola - Kontserbatorioiko COVID-19 Kontingentzia Plana, 2020ko abuztuaren 24an.

Iruñean, 2020ko urriaren 30ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, Murchanteko "Mardones y Magaña" Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Murchanteko "Mardones y Magaña" Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren egoerari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioko Pedro José González Felipe jaunak egindako 10-20/PES-00221 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak jakinarazten du:

IKASLEEN KOPURUA, mailaka eta taldeka:

Taldeak	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA					
	3 urte	4 urte	5 urte	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a
A	4	0	0	3	0	0	3	0	8
B	0	0	0	0	0	0	0	6	0
C	0	6	8	0	2	6	0		
GUZTIRA	4	6	8	3	2	6	3	6	8
	18			28					
	46								

2.- A ereduko ikasle horien **HASIERAKO ANTOLAKETA**, 2019-2020 ikasturtearen hasieran:

Taldeak	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA					
	3 urte	4 urte	5 urte	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a
A	3	2	2	1	0	0	2	2	5
B	1	0	2	1	0	3	0	4	3
C	0	4	4	1	2	3	1		
GUZTIRA	4	6	8	3	2	6	3	6	8
	18			28					
	46								

3.- JUSTIFIKAZIOA:

Ikuskatzaileak ikastetxean egin zuen bisitaldian, irailaren 21ean, protokolo ofizialean ezarritako prebentzio soziosanitarioaren neurriak aplikatzea gainbegiratu zituen. Ikusi zen Euskara ikasgaiaren ikasgela batean, aldi berean, 3 ikastalde desberdinetako Lehen Hezkuntzako 1. mailako 3 ikasle zeudela (talde egonkor bakoitzeko bat). Protokolo ofizialaren B.2 apartatuan ezarri

denez, ikastalde batean talde egonkor desberdinetako ikasleak badaude, adingabeen arteko elkarrekintzak saihesteko segurtasun neurriak aplikatu behar dira, banatzeko bitarteko fisikoak barne (manparak). Zuzendaria eta euskara irakaslea bertan egonda, hautazko ikasgaiak ikasteko taldeetan manpara bereizle gehiegi erabiltzea saihesteko, ikasgai horietako ikasleak, ahal den heinean, bizikidetzatalde egonkor berean berrantolatzeko proposatu zen.

4.- **ERAGINDAKO IKASLEAK** (ikasturteka eta hizkuntza-ereduka):

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA					
	3 urte	4 urte	5 urte	1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a
A eredua	1	2	4	2	0	3	1	2	3
G eredua	1	2	4	0	0	3	0	2	3
GUZTIRA	2	4	8	2	0	6	1	4	6
	14			19					
	33								

5.- Aldaketak familiei KOMUNIKATZEA: Mardones y Magaña HLHIPan, bi modutan jakinarazi dira:

a) Ikastetxeko familia guztiei zuzendutako mezu elektronikoro korren bidez, ikasgeletan manpara bereizle asko erabiltzea saihesteko, ikasleak berrantolatuko direla esanez.

b) Taldea aldatu behar izan duten ikasleen familiei egindako telefono-deiaren bidez.

Ikastetxeko Guraso Elkarteak zuzendaritzari ere informazioa eskatu zion, eta informazio zehatza eman zitzaion, aldaketen arrazoiak azalduta (telefonoz, eta gero, posta elektronikoz).

6.- JASOTAKO ALEGAZIOAK:

a) Ikastetxeak familia baten kexa jaso zuen telefono bidez, ikasleen antolaketan egin beharreko aldaketaren berri ematean. Familia berak ere aurrez aurre azaldu zuen desadostasuna zuzendariaren bulegoan, baita idatziz ere, posta elektronikoen bidez. Gainera, IKE eredu gisa (Iradokizuna, Kexa, Erreklamazioa) 4 kexa jaso ziren;

horietatik hiru familia berak jarri zituen, beren alaba aldaketaren eraginpean egon gabe.

b) Ikuskapen Zerbitzuak kexa bat jaso zuen posta elektronikoz eta telefonoz.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, Foruzaingoan 2020rako egingen den lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Foruzaingoan 2020rako egingen den lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz egin duen galderaren bidez (PES-00223) honako informazio hau eskatu zaio Nafarroako Gobernuari:

Zenbat foruzainek osatzen dute egun Foruzaingoaren plantilla bere langile guztiak kontuan hartuta (maila ezberdinetako agenteak eta agenteak)?

Foruzaingoan aktibo dauden pertsonen kopurua, maila desberdinetako agintari eta agenteak aintzat hartuta, 1.072 da 2020ko urriaren 1ean.

Aurrekoaz gain, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren urriaren 5eko 2245/2020 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolari atxiki zaizkio eta praktiketako funtzionario izendatu dira Nafarroako Foruzaingoako agente lanean hasi nahi duten pertsonak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan zerbitzura jarduteko berrogeita hamaika lanpostu betetzeko 2019ko oposizioako deialdiaren bidez hautatutakoak.

Iragarritako 45 lanpostu horietatik, zenbat dagozkie agenteen erretiroei eta zenbat Foruzaingoaren plantilla egonkortzeari?

2018. urterako Estatuko aurrekontu orokorrek (2020. urterako luzatutakoek) ezartzen dutenez, giza baliabideak berriztatzeko tasa kalkulatzekoan, aintzat hartuko da aurreko aurrekontu-ekitaldian sektore, arlo, kidego edo kategoria bakoitzean zerbitzuak emateari utzi zioten langile finkoen kopuruaren eta aipatu ekitaldian lanean hasi ziren –arrazoia edozein dela ere– langile finkoen kopuruaren arteko aldea, azken horiei dago kienez, enplegu-eskaintza publikoetatik datozenak edo lanpostuak gordetzea ez dakarten egoeretan lanera itzuli direnak kenduta.

Giza baliabideak berriztatzeko tasaren ondorioetarako, Foruzaingoan, alta eta baje arteko aldea, 2019an, 10 pertsonakoa da.

45 agente horiek jabetza hartzen dutenean, zenbat faltako dira Foruzaingoaren plantillan Segurtasun Batzordean 2009an adostutako 1.200eko kopurura iristeko?

Foruzaingoaren plantillako pertsona kopurua, 1.200era iristeko falta dena, 45 agente berriek lanpostuak hartuta, erretiro, eszedentzia eta abarrekoen ondorioz aldi horretan gertatuko diren baje eta lanpostua gorde gabe lanera itzuli diren kopuruaren arabera izanen da.

Gobernuak ba al du asmorik aparteko lan-eskaintza publikorik egiteko (berrezarpen-tasa dela-eta urtero egin beharrekotik aparte), Segurtasun Batzordean 2009an adostutakoaren arabera 2012an beteta egonen litzatekeen 1.200eko kopurura iristeko?

2018ko Estatuko aurrekontu orokorrek, 2020. urtera luzatutakoek, mugatu egiten dute sektore publikoan langile berriak gehitzeko aukera. Aurrekontuek ezartzen dute lan publikoaren eskaintza giza baliabideak berriztatzeko tasari loturiko prozesuen ondoriozkoa izanen dela, eta, hala bada-gokio, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa osagarriaren ondoriozkoa; azken horrek barnean hartuko ditu egiturazko lanpostuak, 2017ko abenduaren 31n eta azken hiru urteetan (gutxienez) etenik gabe beteta zeudenak.

Foruzaingoaren kasuan, ez dago aldi baterako enplegurik; hortaz, giza baliabideak berriztatzeko tasari loturiko prozesuen ondoriozko lan publikoaren eskaintza bakarrik izan daiteke.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko azaroaren 3an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, Europaren egungo politikak giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Europaren egungo politikak giza eskubideak errespetatzeari buruzkoa. Galdera 2020ko urriaren 9ko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide izan eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak idatziz erantzuteko galdera hauek egin ditu (10-20/PES-00224):

1.- Europaren egungo politikak giza eskubideak kolpatzen eta urratzen dituztela uste al duzu?

2.- Errefuxiatuen egoera dela-eta genozidioa egiten ari dela uste al duzu?

3.- Europa arlo horretan politika supiztaileak baliatzen ari dela uste al duzu?

Hori dela eta, hona Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Zenbait hausnarketa partekatu nahi ditut Parlamentuko lehendakariarekin eta parlamentariarekin.

